

**ERABAKIA, 2026ko otsailaren 3koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseilurena, zeinaren bidez onartzen baita UPV/EHUko aldi baterako eta bitarteko irakasle laguntzaileen ikerketa-jarduera ebaluatzeko ezohiko deialdi bat, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiaren 363/2022 epaia betearaztearen ondorioz abian jartzen dena; epai hori irmoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2025eko otsailaren 12ko 87/2025 Epaia bidez.**

Unibertsitate Sistemaren martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak 87. artikuluan ezartzen du unibertsitate publikoetako irakasle eta ikertzaile lan-kontratudunen ordainsari-araubidea 77.2 artikuluan aipatzen den araudiaren arabera zehaztuko dela, eta, nolana ere, aplikatu beharreko legeria autonomikoaren esparruan eta negoziazio kolektiboaren bidez. Autonomia-erkidegoek banakako merezimenduei lotutako ordainsari gehigarriak ezarri ahal izango dituzte eginkizun hauetako bakoitza betetzeagatik: irakaskuntza-jarduera, ikerketa-jarduera, ezagutza eta berrikuntza transferitzeko eta trukatzeko jarduerak eta kudeaketa-jarduera.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak 34. artikuluan ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak unibertsitateko irakasleen kidegoei oro har dagozkien osagarrien antzekoak ezarri ahal izango ditu lege honen 14.1 artikuluko kategorietako irakasle kontratatu iraunkorren eta baita bereak dituen ikertzaileentzat ere.

Martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuak, UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoak, 3. artikuluan ezartzen ditu lan-kontratudun irakasle eta ikertzaileen ordainsariak, eta horien artean daude ikerketa-merezimenduengatik osagarriak, 8. artikulua arautzen dituenak. Aipatutako 8. artikulua, hirugarren puntuak dio Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak (aurrerantzean, Unibasq) ikerketa-jardueraren ebaluazioa egingo duela, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalarekin (CNEAI) koordinatuta. Batzorde hori arduratzen da irakasle eta ikertzaile funtzionarioei ebaluazio hori egiteaz, eta Unibasqek jarduerak hori garatzen du Kalitatea Ebaluatzeko eta Egiatzatzeko Agentzia Nazionalarekin (aurrerantzean, ANECA) horretarako sinatutako hitzarmenaren arabera – 2022ko otsailaren 7ko Ebazpenaren bidez onartutako hitzarmena (2022ko otsailaren 22ko BOE, 45. zk.) edota xede bererako formalizatu daitekeen beste antzeko baten arabera – (izan ere erakunde publiko horren mende baitago CNEAI) eta hori guztia Unibasqek ebaluazio horiek indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera egiteko duen eskumenari kalterik egin gabe, besteak beste, aipatutako 3/2004 Legearen eta 41/2008 Dekretuaren arabera.

2018ko urtarrilaren 24an, Unibasqeko zuzendariak Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez aldatzen baita Unibasqeko zuzendariaren 2017ko abenduaren 18ko Ebazpena, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) lan-kontratu iraunkorra duten irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzeko prozedura eta eskaerak aurkezteko epea ezartzen zituena. Ebazpen horretan, UPV/EHU lan-kontratu iraunkorra duten irakasleek 2017ko abenduaren 31ra arte egindako ikerketa-jarduera ebaluatzeko oinarriak ezartzen ziren. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2025eko otsailaren 12ko 87/2025 Epaia bidez irmo bihurtu den Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 1. Epaitegiaren 363/2022 Epaia bidez betearazpenak Unibasqi eskatzen dio aipatutako deialdia subjektiboki zabaltzeko, eta deialdiaren xedean sartzen ditu UPV/EHUko aldi baterako irakasle laguntzaileak eta bitarteko irakasleak), eta aurreko guztia kontuan izanik, Agentziaren Gobernu Kontseiluak

ERABAKI DU:

Bakarra. Epaia betez, UPV/EHUko aldi baterako irakasle lankideen edo kolaboratzaileen eta dagozkien (edo, mota horietako plazetako) bitarteko irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzeko ezohiko deialdia onartzea eta argitaratzea, honako oinarri hauen arabera:

## OINARRIAK

### Lehena. Xedea

Deialdi honen xedea da UPV/EHUko aldi baterako irakasle lankideen eta mota horretako lanpostu bat bitarteko kontratu baten bidez betetzen duten lan-kontratudun irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzea. Ebaluazio hori eskatzeko eskubidea izango dute 2017ko abenduaren 31n UPV/EHUrekin bigarren oinarrian adierazitako kategorietako kontratu bat sinatuta zuten pertsonak.

Bigarrena. Ebaluazio-eskaera egin ahal izateko baldintzak.

1.– Beren ikerketa-jardueraren ebaluazioa eskatzeko eskubidea izango dute 2017ko abenduaren 31n UPV/EHUrekin aldi baterako lankide edo kolaboratzaile kontratu bat sinatuta zuten irakasle eta ikertzaileek. Era berean, une horretan kategoriatan horretako plazaren bat bitarteko gisa betetzen zuten irakasle eta ikertzaile lan-kontratudunak ere aurkeztu ahal izango dira deialdira.

2.– Lehen aipatutako irakasle edo ikertzaileek egoera hauetakoren batean egon behar zuten 2017ko abenduaren 31n:

- a) Azken tartearen ebaluazio positiboa 2011ko abenduaren 31n amaitu dutenak edo aurreko urteetan amaitu dutenak.
- b) Aurretik inoiz aurkeztu ez direnak eta 2017ko abenduaren 31n gutxienez sei urte ebaluagarri betetzen dituztenak.
- c) Ebaluazio normalaren azken tarte aitortu ez zaienak, baldin eta tarte hori 2014ko abenduaren 31n edo aurreko urteetan amaitu bada. Egoera horretan dauden eskatzaileek beste aldi bat eraiki lezakete, sei urtekoa, aurkeztutako ikerketaren azken zatian ebaluazio negatiboa jaso duen baten batekin, eta, gutxienez, tarte horren ondorengo hiru urterekin. Batera aurkeztutako bi tarteren edo gehiagoren aurreko ebaluazio negatiboa izanez gero, seiurteko berria ikerketaren azken tarteari dagozkion urteekin soilik osatuko litzateke.

Hirugarrena. Ebaluazio-prozeduraren instrukzioa.

1.– Unibasqi dagokio UPV/EHUko aldi baterako eta bitarteko irakasle laguntzaileen ikerketa-jarduera ebaluatzeko ezohiko deialdi hau ebaluatzeko prozedura instruitzea, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren 87/2025 epai irmoa betearaztearen ondorioz. Ebaluazio-prozedura oso konplexua da, deialdia garaiz kanpoko baita. Horretarako, ANECA-CNEAIren 2017ko deialdirako ezarritako prozedura hartuko da kontuan – Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Unibertsitateko Estatu Idazkaritzaren 2017ko abenduaren 13ko Ebazpenaren bidez argitaratua, zeinaren bidez onartzen baita ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaerak Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalari aurkezteko prozedura eta epea (2017-12-16ko BOE, 305. zk.)

2.– Ebaluazioan 1994ko abenduaren 2ko Aginduaren 7. artikuluan (1994ko abenduaren 3ko BOE, 289. zk.) eta 1994ko abenduaren 5eko Unibertsitate eta Ikerketako Estatu Idazkaritzaren Ebazpenaren 7. artikuluan (1994ko abenduaren 8ko BOE, 293. zk.) ezarritako irizpide orokorrak beteko dira. Aipatutako irizpide orokorrak ANECA-CNEAIren 2017ko ikerketa-seiurtekoen deialdirako ebaluazio-eremu bakoitzerako ezarritako irizpide espezifikoekin osatuko dira – 2017ko azaroaren 23ko Ebazpena, Ikerketa Jardueraren Ebaluazio Batzorde Nazionalarena, ebaluazio-eremu bakoitzerako onetsitako irizpide espezifikoak argitaratzen dituen (2017/12/01eko BOE, 292. zk.) –, eta, jakina, aparteko deialdi hau garaiz kanpoko izanik, bere aparteko izaerara egokituko dira, eta 2017ko abenduaren 31ra arte lortutako merezimenduak hartuko dira kontuan ebaluaziorako eta 2017 urtea arteko sei urtekoaldiak.

3.– Deialdi hau garaiz kanpoko denez, Unibasqek zuzenean ebaluatuko ditu ezohiko deialdi honetara aurkeztutako eskabideak, hots, bere ebaluazio-batzordeen bidez. Batzorde horietako

kideek Unibasqen Etika eta Berme Kodearen arabera jardun beharko dute. Izan ere Unibasq-ek 2017ko ezohiko eta garaiz kanpoko ebaluazio-deialdiaren ebaluazioa CNEAlri eskatu baitzion, bi agentzien artean ezarritako hitzarmenaren babesean –CNEAlren 2017ko azaroaren 23ko Ebazpenaren bidez argitaratutako irizpide espezifikoa edo CNEAlren 2025eko deialdian ezarritakoak kontuan hartuta –, eta, nolahi ere, aipatutako hitzarmenean aipatzen den CNEAlk egindako jardueren prozedurarekin eta esparruarekin bat etorritik, baina ANECAk Unibasqi jakinarazi zion ezin zituela eskabideak ebaluatu, ondorio akademiko guztiekin. Izan ere, ebaluazioak egingo balitu horiek ez baitziren, ANECAren ustez, CNEAlren egitekoa gidatzen duen prozeduraren arabera izango.

4.– Aparteko deialdia Unibasqeko irakasle eta ikertzaileen akreditazio-programako batzordeek ebaluatuko dute. Batzorde horiek jakintza-arloen arabera antolatuta daude; honela, hain zuzen ere: 1.- Medikuntza eta Osasun Zientzietako Batzordea; 2.- Irakaskuntza Teknikoen Batzordea; 3.- Zientzia Esperimentalako Batzordea; 4.- Giza Zientzietako Batzordea; 5.- Zientzia Juridikoak eta Ekonomia Zientzietako Batzordea; eta 6.- Gizarte Zientzietako Batzordea.

Batzorde horietako kideek 2017ko deialdiko irizpide orokorrak, espezifikoa eta baremoak bideratzeko zuzeneko esperientzia duten ebaluatzaileen laguntza eskatuko dute, baldin eta irizpide horiek aplikatzeko ezagutza eta esperientzia objektibagarririk ez badute, Unibasqen Etika eta Berme Kodean ezarritakoarekin bat etorritik; adibidez, 2017ko deialdirako CNEAlren aholku-batzordeetako kide izan ziren akademikoek eta ikertzaileen kasua da, edo hurbileko beste batzuetan, aurkeztutako errekurtsoen berri eman zuten CNEAlko kide izendatu zituzten akademikoek eta ikertzaileen kasua. Diziplinarteko eta diziplina anitzeko 0 esparrura aurkeztutako eskabideak formalki eskatzaileak Unibasqekin izandako harremanean adierazitako 6 komiteen artean jakinarazitako ebaluazio-batzordeari esleituko zaizkio, eta CNEAlren 0 eremu horretarako irizpide espezifikoa aplikatzen esperientzia duten akademiko eta ikertzaileen laguntzarekin ebaluatuko dira.

Unibasqen ebaluazio-lan hori guztia arduraz kudeatuko du, ebaluazio-programa desberdinetan duen esperientzia eta jakintza oinarri hartuta; besteak beste, Ikertramoak programa, EUSeko unibertsitateetako irakasle ez-iraunkorrei edo zerbitzu aktiboan dauden ikertzaileei zuzendua, aipaturiko programa hori berariaz sinaturiko akordio, hitzarmen edo kudeaketa-gomendioen baitan eta programa hori ebaluatzeko protokoloaren babesean garatutakoa (Unibasqeko zuzendariaren 2019ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez onartua) eta hura ere ANECA-CNEAlrekin koordinatutakoa.

Prozesu horretan, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentuak baino ez dira kontuan hartuko, eta, beraz, ez da entzunaldi-izapiderik egingo, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.– Unibasq-eko ebaluazio-batzordeek eta, hala badagokio, kontsultatutako adituek eskatzaileak curriculum vitae laburtuan aurkeztutako iharduerari buruzko irizpen tekniko bat egin beharko dute, beti ere curriculum vitae osoan zehaztutako testuinguruaren baitan. Dagokion batzordeak edo adituek egokitzat jotzen badute, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio curriculum vitaean zerrendatutako ekarpen baten edo guztien kopia bidaltzeko, baldin eta kopia hori aplikazio informatikoan sartu ez bada. Irizpen teknikoa zenbakitan adieraziko da, zerotik hamarrera, eta gutxienez sei puntu beharko dira sei urteko tartean ebaluazio positiboa lortzeko. Ebaluazio bakarren kasuan (1988ko abenduaren 31ra arte egindako ikerketa-jarduera), irizpen teknikoa zenbakitan adieraziko da, zenbaki-tartea zero eta eskatutako tarte-kopurua bider hamar izango direlarik. Kasu horretan, positiboki ebaluatutako tarteen kopurua izango da esleitutako guztizko puntuazioa zati sei eginda ateratzen den zenbaki osoa.

UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen ordainsariei buruzko martxoaren 4ko 41/2008 Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren arabera («Irakaskuntza- eta ikerketa-merezimenduengatik osagarriaren lehenbiziko ebaluazioa»), «Irakaskuntza- edota ikerketa-merezimenduengatik

ordainsari osagarria lehenengo aldiz eskatzen denean, irakaskuntza-jardueraren eta ikerketa-jardueraren ebaluazio bana eginez erabakiko da osagarria eman ala ez, osagarri-atal bat baino gehiago aitortzen bada ere; osagarriaren zenbatekoak ezin izango du 9.8 artikuluan ezarritako muga gainditu.» Aurrekoa gorabehera, eskabidea aurkeztean zehatz-mehatz adierazi beharko dira ebaluatzeko aurkezten diren 6 urteko aldi guztiak.

6.– Unibasqek ematen duen ebazpena arrazoitzeke, nahikoa izango da aurreko puntuetan adierazitako Ebaluazio-batzordeek egindako txostenak sartzea, baldin eta Unibasqek bere gain hartu baditu. Hala ez bada, Unibasqen ebazpenean sartu beharko dira txosten horietatik aldentzeko arrazoiak, bai eta adituek emandako beste txosten batzuek bermaturiko edo bermatugabeko oinarriak ere.

7.– Unibasqek eskatzaile bakoitzari bere eskaeraren ebaluazioaren emaitza jakinaraziko dio banan-banan, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bidez.

8.– Ebazpena emateko epea sei hilabetekoa izango da, eta Unibasqek eten ahal izango du eskaeraren ebazpena emateko eta jakinarazteko epea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22d) artikuluan xedatutakoaren arabera, eskabideak ebaluatzeko aipatutako batzordeek nahitaezko ebaluazio-txostenak Unibasqi ematea beharrezkoa den heinean.

9.– Unibasqek aparteko deialdi honen garaiz kanpoko izaeraren ondorioz sor daitezkeen egoera-kasuistika aztertuko du. Hala, eskatzaile batek 2017ko deialdian ebaluatzeko aurkezten dituen urte eta merezimenduen multzoa berdin-berdina bada eta CNEAlren 2017ko deialdiaren ondorengo deialdietan aldeko ebaluazio-txosten bat jaso bazuen, deialdi honen bigarren puntuan jasotako baldintzak kontuan hartuta, Unibasq-ek jarduketean atzeraeragitea proposatuko dio eskatzaile horri, eta 2017ko aparteko deialdi horren ondorengo deialdian aurkeztutako eskaeran atzera egitean zehaztu beharko da hori, Agentziak 2017ko deialdiari dagokion beste ebazpen bat eman ahal izan dezan. Era berean, Unibasqek kontuan hartuko ditu urteen edo merezimenduen ebaluazioan egon daitezkeen gainjartzeak edo bikoiztasunak; adibidez, eskatzaile batek Unibasqek aparteko deialdi honen ondoren ebatzitako ebaluazio-deialdietan aldeko ebaluazioa jaso duen urte edo merezimenduren baten ebaluazioa egiten badu, deialdi honen bigarren puntuan jasotako baldintzak kontuan hartuta, eta ezohiko deialdi honetan ebaluazio positiboa lortzen badu eskatzaileak, jarduketean atzeraeragitea proposatuko dio eskatzaile horri. Atzeraeragite hori 2017ko ezohiko deialdi horren ondorengo deialdian aurkeztutako eskabidearen atzera egitean zehaztu beharko da, Agentziak beste ebazpen bat eman ahal izan dezan, beti ere dagokion epe eta moduan; horrelako eta antzeko kasuetan, eskatzaileak ez badu ostera aurkezturiko deialdiari buruz atzera egiteko eskaerarik egiten, aurkeztutako eskaera ez da ebatziko/ez da bidezkoa izango.

Laugarrena. Eskabideak formalizatzea.

1.– Eskatzaileek telematikoki aurkeztu beharko dute eskabidea; izapidetzeko jarraibideak Unibasqen webgunean daude eskuragarri, ikerketari dagokion atalean, irakasleen arloaren barruan.

2.– Aurreko puntuan adierazitako Unibasqen webgunearen atalean, betetzeko baldintzak eta jarraibideak zehaztuko dira.

3.– Ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskabideak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 9tik 30era izango da.

4.– Eskabideak gaztelaniaz eta euskaraz aurkeztu ahal izango dira. Unibasqek itzuliko ditu euskaraz aurkeztutako eskabideak, baldin eta ebaluatzaileek ez badute euskararen ezagutza nahikorik ebaluazioak behar bezala egin ahal izateko.

5.– Unibasqek administrazio-prozeduraren edozein unetan eskatu ahal izango ditu eskabideari erantsitako artxibo elektronikoan jatorrizko dokumentuak, haien baliozkotasuna eta komunztadura egiaztatzeko.

6.– Unibasqek beretzat gordetzen du eskaeran jasotako artxibo elektronikoak sortzeko jatorrizko dokumentuak aldatzen dituzten pertsonen aurka legez jarduteko eskubidea.

7.–Interesdunek [seiurtekoak@unibasq.eus](mailto:seiurtekoak@unibasq.eus) helbidera jo ahal izango dute aplikazio informatikoarekin lotutako kontsultak egiteko eta ezohiko deialdi honekin lotutako edozein kontsulta egiteko.

8.– Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Legearen arabera, 50.69 euroko tasa ezartzen da ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskaera izapidetzeagatik.

Eskabidea telematikoki bidali ondoren egin beharko da ordainketa. "Nire ordainketa" zerbitzua pasabide bat da, herritarrek atxikitako edozein euskal administrazio publikorekin egin behar dituzten izapide guztiak online, modu seguruan eta doan ordaintzeko. Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-pasabidearen bidez ordaindu ahal izango da. Horretarako, NIRE KARPETAra sartu beharko da eskatzailea, [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean.

Bosgarrena. Ebazpena eta errekurtsioak.

1.– Unibasqen zuzendaritzaren ebazpenaren bidez jakinaraziko zaizkie emaitzak eskatzaileei, guztiak batera, iragarki-taula elektronikoan Egoitza elektronikoa - Euskadi.eus. Ebazpen hau iragarki-taula elektronikoan argitaratzen den eguna izango da ebazpenaren jakinarazpena egiteko data formala, ondorio guztietarako. Gainera, hurrengo egunetan, ebazpena banan-banan bidaliko da administrazio elektronikoaren bidez.

2.– Ebazpenetan adierazi beharko da zein tartetarako egin den ebaluazioa, positiboa edo negatiboa izan den, eta, beraz, txostena aldekoa edo kontrakoa izan den. Era berean, ebaluazioa kontrakoa bada, dagokion ebaluazio-txostena erantsiko da.

3.– Ebazpen horren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa aurkez dakioke Unibasqi, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar daiteke Administrazioarekiko auzien Epaitegi eskudunetan, bi hilabeteko epean, bi kasuetan ebazpen kolektiboa iragarki-taula elektronikoan jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Unibasqek Agentziako irakasle eta ikertzaileen akreditazio-programako Errekurtsioak Ebaluatzeko Batzordeari helaraziko dizkio baliaabideak. Batzorde horrek errekurtsioen berri emango du, eta, horretarako, hasierako ebaluazioan parte hartu ez duten adituen aholkularitza eskatu ahal izango du, beti ere deialdiaren irizpide orokorrak eta espezifikoak aplikatzeari dagokionez.

Seigarrena. Unibasqen ebazpenen ondorioak.

1.– Unibasqek, UPV/EHUko edo EUSeko beste unibertsitate batzuetako irakasle lan-kontratudunen ikerketa-jarduera ebaluatzeko etorkizuneko deialdietan, aparteko moduan hartuko du kontuan 2017ko garaiz kanpoko izaeraren ondorioz ezohikoa den deialdi honek sortutako egoeren kasuistika. Alderdi horiek Unibasqen ebazpenetan jasoko dira, beharrezkoa den xehetasun-mailarekin, eragindako eskatzaileek ebazpen horien ondorio ekonomiko egokiak eskatu ahal izan ditzaten, beti ere beharrezkoa den aparteko izaerarekin.

2.– Unibasqek kontuan hartuko ditu aparteko ebaluazio-deialdi honen aldeko ebazpenen ondorio akademikoak, eta koherenteak izango dira deialdi honetan zehaztutako ebaluazio-prozeduraren jarraibidearekin. Besteak beste, kontuan hartuko ditu irakasle eta ikertzaileak egiaztapen programarako eta baita UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen autonomia-erkidegoko ordainsari

osagarriak emateko ebaluazio-programarako ere. Hala ere, ezohiko deialdi honetan egindako ebaluazioak ANECA-CNEAIk aitortzea ala ez aitortzea ANECAren erantzukizun eksklusiboa izango da; adibidez, aparteko deialdi honetan aldeko txostena lortu eta unibertsitateko irakasleen kidegoetako kategoriaren batean (irakasle funtzionarioak) sartu diren edo etorkizunean sartu ahalko diren eskatzaileei ANECA-CNEAI erakundeak eman ahalko liokeen ikerketa-seiurtekoa aitortzea, ANECAren erantzukizuna litzateke soilik.

3.– Aintzatespen-hitzarmen baten esparruan, Unibasqek ofizioz sustatuko du ANECAk ezohiko deialdi honetako ikerketa-seiurtekoen ebaluazioen aitortzea, horretarako hainbat argudio kontuan izanik; hala nola, ebaluazio horien izaera, proposatutako ebaluazio-prozeduraren ezaugarriak, bi agentziek ebaluazio-programetan izandako lankidetzeta-esperientzia, eta bi agentziak Goi Mailako Hezkuntzaren Kalitaterako Europako Elkarteko (European Association for Quality Assurance in Higher Education, ENQA) eskubide osoko kide direla kontuan izanik eta baita Kalitate Agentzien Europako Erregistroan (EQAR) inskribatuta daudela ere.

4.– UPV/EHUri edo irakasle eta ikertzaileak kontratatu dituzten beste unibertsitate batzuei dagokie aparteko ebaluazio-deialdi honen aldeko ebazpenen ondorio ekonomikoak aitortzea.

Zazpigarrena. Izaera pertsonaleko datuei buruzko dokumentu-araubidea eta eskubideak.

1.– Datuak babesteko araudia betez, kontuan hartuko da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa, bai eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan jasotakoa ere, interesdunek emandako datuak fitxategi automatizatu pertsonal batean sartu ahal izango dira (Unibasq da fitxategi horren titularra), Agentziak deitutako prozesuak garatzeko, baldin eta interesdunek parte hartzen badute.

2.– Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta "Irakasleak ebaluatzen programak" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

•Arduraduna: Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia.

• Helburua: Irakaslearen irakaskuntza, ikerkuntza, ezagutza zabaltzearen eta kudeaketa merituak ebaluatzea, programa desberdinen arabera.

• Legitimazioa: Beharrezkoa den tratamendua, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

• Hartzaileak: Dagokionean UPV/EHU, Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila.

• Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

• Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/034900-cap2-eu.shtml>

• Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra:

[www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa:

[www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)

Zortzigarrena. Errekurtsoak.

Aipatutako epaia betearaztea helburu duten deialdiaren eta bere oinarrien aurka Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegian Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 103. artikuluan eta hurrengoetan jasotako epaia betearazteko intzidentea sustatu ahalko da.

Gasteizen, 2026ko otsailaren 3an.

Unibasqeko Gobernu Kontseiluaren Lehendakaria,

JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS